



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura

# Arteei, kultura-industriei eta sormen industriei buruzko

# 2019

 ko estatistikak

**DATUEN LABURPENA**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**




KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA


# Aurkibidea

<b>1. Ikuspegi globala</b>	<b>3</b>
<b>2. Sektoreen araberako azterketa</b>	<b>5</b>
Agenteak	5
Diru-sarrerak	6
Enplegua	7
<b>3. Zeharkako irakurketak</b>	<b>9</b>
80/20 diru-sarrerak	9
80/20 enplegua	10
Emakumeen ehunekoa	11

## 1. Ikuspegi globala




Arteei eta Kultura Industriari eta Sormen Industriari buruzko Estatistikaren datu nagusiek eskaintzen diguten panorama globalean **1.055 agenteak hartzen dute parte, 793 milioi euroko bolumena metatzen dute eta 7.017,2 langileri ematen diete lana.**



- ▶ Estatistikako **agenteen % 66,4 kultura-sektoreetakoak** dira; **diru-sarrera** totalen % **56,6** sortzen dute eta EAEko **enpleguaren % 47,6ri** ematen diote lana.
- ▶ Sormen-industrietako agenteak % **33,6** dira; **diru-sarrera** totalen % **43,4** metatzen dute, eta **langileen % 52,0ri** ematen diete lana.
- ▶ Enpresa bakoitzeko langileen ratioari dagokionez, enpresa bakoitzeko 6,7 pertsonako ratoria iristen da batezbestekoa. **Sormen-sektoreetan 10,4 langilek** lan egiten dute **enpresa bakoitzeko**; kultura-sektorean 4,8k. Hizkuntzaren industriak nabarmentzen dira: 17,8 langile enpresa bakoitzeko, eta ondoren bideo-jokoak (14,5) eta publizitatea (10,5) daude.


## 2. Sektoreen araberako azterketa

### Agenteak




Datuak sektoreen arabera aztertzen baditugu, ikus dezakegu arte eszenikoen sektorea dela agente kopuru handiena duena. Ondoren, musikaren, ikus-entzunezkoen, publizitatearen eta liburuaren sektoreak daude. Publizitateak izan ezik, sormen-sektoreek baino agente gehiago dituzte kultura-sektoreek. Moda eta bideo-jokoak dira sektore txikienak.

## Diru-sarrerak




Diru-sarrerei dagokienez, ikus-entzunezkoen eta publizitatearen bolumena nabarmentzen da (telebista publikoaren eragina hartu behar da kontuan lehenengo kasuan), biak bere sektoreetako batezbestekoen oso gainetik. Negozio-bolumen txikiena duten sektoreak ikusmen-arteak dira kultura-industrien kasuan, eta bideo-jokoak sormen-industrien kasuan.

## Enplegua



Enpleguan ikus-entzunezkoak, publizitatea eta hizkuntzaren industriak nabarmentzen dira, batezbestekoen oso gainetik. Ikusizko arteak behe-beheko posizioetan daude kultura- eta sormen-sektoreetako enpleguaren rankingean.




Lurraldearen araberako datuetan Bizkaia nabarmentzen da gainerako lurraldeen aurretik, agenteen, diru-sarreraren zein enpleguaren bolumenean.

Datuak kultura- eta sormen-eremuaren arabera aztertzen badira, alde txikiak daudela ikusten da. Bizkaian eta Gipuzkoan kultura-industrietako agente gehiago daude sormen-industrietako agenteak baino, diru-sarrerak eta enplegua proportzionalki Gipuzkoan txikiagoak badira ere, Bizkaia baita nagusi. Sormen-industriek proportzio handiagoa dute beren lurralde-banaketan agenteen maparen, diru-sarreraren eta sortzen duten enpleguaren artean.



### 3. Zeharkako irakurketak

#### 80/20 diru-sarrerak




\* Diskoetxerik gabe, datuen babesa dela medio

Datuak 80-20 arauaren edo Paretoen printzipioaren arabera aztertzen badira, (diru-sarrera gehien dituzten sektore bakoitzeko agenteen % 20aren eta gainerako % 80aren artean ebakidura bat aplikatuz bilatzen dira aldeak) ikus daiteke agente kopuru txiki


batek metatzen dituela diru-sarrera gehienak sektore guztietan. Sei kasutan sektoreko negozio-bolumenaren % 80a ere gainditzen da.

Gauza bera gertatzen da enpleguaren kasuan, baina asimetria ez da hain nabarmena. Musika-programatzaile publikoen kasuan eta hizkuntzaren industriaren kasuan soilik gainditzen da enpleguaren % 80a.

### 80/20 enplegua



## Emakumeen ehunekoak



Enplegua oraindik gehiago banakatzen bada eta genero-ikuspegia aintzat hartzen bada, sektore feminizatuenak eta maskulinizatuenak zein diren ikus daiteke. Moda, hizkuntzaren industriak, liburua eta publizitatea dira beren plantilletan emakume kopuru handienari lana ematen diotenak. Arkitekturan eta, batez ere, bideo-jokoetan, presentzia txikiagoa dute.